



'Mintza beditik' aise mintzatzera

Berriz ere Olarizuko zelaietan ospatuko da Arabako ikastolen jaialdia, ekainaren 16an. Aurtengo edizioa Oiongo San Bizente ikastolaren aldekoa izango da. 1977an sortutako ikastetxea 11 une izatetik hirurehunik gora ikasle jasotzera pasa da, euskarak Arabako Errioxan egin duen gorabidearen lekuko.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

L 984ko uztailaren 22 urrun batean ospatu zuten lehenbiziko aldiz Araba Euskaraz Oionen. Gaurkoarekin alderatuta oso bestelakoa zen duela 40 urteko panorama hura euskararentzat eta, orobat, euskaldunentzat. Arabako Errioxan, guztira, 398 lagunek ikasten zuten euskara, 128 helduk AEKko gau-eskoletan; eta 270 haurrek inguruko ikastoletan. Oiongo San Bizente ikastolan, berriz, 83 haur zeuden matrikulatuta. Araba Euskaraz en laugarren edizio horren helburu nagusia, beraz, "euskararen aldeko" egun osoko ospakizun handi bat antolatzea izan zen, ez gehiago ez gutxiago. Ikastolen elkartearekin eta AEKrekin batera, zonaldeko beste eragile politikoek, sindikalek eta kulturalak ere parte hartu zuten antolaketa.

Arrazoiz ugari egon ziren Oion aukeratzeko. Lehenik eta behin, herrialdeko eremu erdaldunena zen orduan Arabako Errioxa, eta euskara ikasten zuten pertsonen ehuneko ere oso txikia zen; biztanleria osoaren %4ra ozta-ozta iristen ziren gau-eskoletako eta ikastoletako ikasleak. Bigarrenik, gaur bezala, Oion Arabako Errioxako biztanle gehien dituen udalerria da; 1980ko hamarkadan, 2.000 biztanle inguru, eta euskararen zabalkundean udalerrira gakoa zen. Azkenik, keinu sinbolikoa egin nahi izan zuten antolatzaileek, eta Gasteiz hiriburutik urrunen dagoen udalerrian, Logroñotik bost kilometrorra, euskararen aldeko jaia ospatzea erabaki zuten.

Laugarren Araba Euskaraz hori, gainera, ez zen egun bakarreko ospakizunera mugatu. Izan ere, uztailaren 5ean hasi ziren ekitaldiak, inguruko 17 herri garrantzitsuetan barrena egin zuten Korrika batekin; uztailaren 21ean amaitu zen Korrika hura, Oion herrian bertan, Nahiko, Itoitz, Zarama eta Ertzainak taldeen kontzertu gogoangarri batekin. Korrikaren lekukoa eskuz esku eraman zuten hainbat elkartetako, kultur taldeetako eta udaletako ordezkariak; eta Oiongo ikastolako haur batek irakurri zuen lekukoan gordetako Abel Enbeitaren bertsoa: "Gure hizkuntza da ta har dezagun poza, bihar euskaraz mintza bedi Arabako Errioxa".



1997ko ekainaren 15ean itzuli zen Oionera bigarren Araba Euskaraz, *Gorabidean* leloarekin. Lehengo aldi hartatik Arabako Errioxan euskara gorabidean zen seinalea zen bertako euskaldun kopuruaren gorakada. Euskal Herri osoetik joandako 40.000 euskaltzalek baino gehiagok parte hartu zuten festan, eta bildutako dirutzak DBHrako behar zuten egoitza eraikitzea ahalbidetu zuen. Hirugarren aldi batean ere hurbildu zen ikastolen jaia Oionera, 2009an, eta *Hauspoari eraginez* lelopean.

Gaur, berriz, oso bestelakoa da egoera. 1976ko gabonetan herriko eta aberriko kulturaz arduratutako guraso talde batek asmoa martxan jarri zuenetik, erro sakonak bota ditu San Bizente ikastolak Oionen. Egun, gurasoen kooperatiba da, eta 304 ikasle, 32 irakasle, 207 familia eta beste kooperatibista asko biltzen ditu. Urteek aurrera egin ahala, San Bizente ikastolaren proiektu pedagogikoak ere aurrera egitzen jarraitu du. "Gaur egun gure ikastolak etengabe jarraitzen du formakuntza horren puntan, gure ikasleei ahalik eta hezkuntza hezigarriagoa emateko helburuarekin", azaldu dute arduradunek.

Funtsezko bi oinarrik ematen diote San Bizente ikastolari berezko nortasuna. "Alde batetik, kooperatiba izatea, gurasoek antolatua, beren seme-alabei hezkuntza euskaldun eta kalitatezkoa eskaintzeko, kudeaketa demokratiko eta garden baten bitartez. Bestetik, kalitatezko zerbitzua eskaintzea da, ikastola euskalduna, integraztailea, akonfesionala, hezikidetzagilea. Metodologia parte-hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dituen Oiongo eta inguruko familia guztientzat". ■

'Hauspoari eraginez' lelopean, 2019an, Oionen egin zuten Araba Euskaraz. IKASTOLA ALDIZKARIA / IKASTOLEN ELKARTEA



"Mugan gauden arren, gure proiektuak ez dauka mugarik"

ARTURO LOPEZ DE LA CALLE SAN BIZENTE IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Oiongo San Bizente ikastolari egokitu zaio aurtengo jaia ospatzea. Beste behin, Gasteiz aukeratu dute, Oion bezalako herri batean logistika asko konplikatzeko zaielako. Proiektuaz harro hitz egin du Lopez de la Callek.

JUANMA GALLEGO

Iazko protagonista izan zen Lautada ikastolako zuzendari Salome Martinez de Ilarduiaren eskutik jaso du aurtengoa antolatzeko lekukoa Arturo Lopez de la Calle (Guardia, 1977) Oiongo San Bizente ikastolako zuzendariak.

2008tik tutore, eta 2015etik zuzendaritza arduretara. Gustura? Oso gustura, bai. Esango nuke sentimendu hori orokorra dela Arabako Errioxako ikastolatan lan egiten dugunon artean. Beti egon gara euskararen alde eta familiei hezkuntza proiektu hau eskaintzearen alde. Eta harro sentitzen gara horretaz. Egia da ere zailtasunak izan ditugula, noski. Adibidez, orain jaiotza tasa oso baxua da, eta kostata lortzen ditugu gelak osatzea, baina hori arazo orokorra da. **Nolakoa da egungo ikastolaren egoera?**

1978an sei edo zortzi familiarekin hasi zenetik hazkunde nabarmena izan du ikastolak. Gaur egun 300 ikasle eta 200 familia baino gehiago gara. Oiongo ikasleak ditugu, eskualdekoak, eta ingurukoak: Gorrebusto, Moreda, Ekora, Meano... Vianatik ere, Lehen Hezkuntza bukatzen dutenean etortzen direlako gurera

Bigarren Hezkuntza egitera. Errioxatik ere portzentaje handi bat datorkigu: 80 bat ikasle; bertatik hiru bus linea ditugu. Hala, Errioxara joan diren familia euskaldunek aukera dute beren seme-alabek euskaraz landutako proiektu honetan parte hartzeko. Aintzat hartu behar da non dagoen Oion: mugan gaude, aurtengo Araba Euskararen leloak adierazten duen moduan. **Zein filosofiarekin jorratuko da aurtengo Araba Euskaraz? Mugaezin** leloarekin adierazi nahi dugu mugan izanda ere gure proiektu honi ez diogula mugarik jarri nahi. Ateak denontzako irekita daude. Berdin nondik etortzen zaizkigun ikasleak, beraiei ahalik eta baliabide gehien eskaintzen ahaleginduko gara. Oiongo gazteentzat, inguruko gazteentzat, etorkinentzat... hemen eskaintzen duguna da kooperatiba sistemaren oinarritutako proiektu bat, eta

"GURE ATEAK BETI EGON DIRA IREKITA; ORAIN ERE IREKITA DAUDE, ETA IREKITA JARRAITUKO DUTE"

familiek garrantzi handia dute gure erabakietan. Logoari dagokionez, zortzi petaloz osatutako eguzki-lorea agertzen du, erdian ikus daiteke euskarari erreferentzia egiten dion *e* moduko bat. Koloreak ere badu zerikusia Arabako gariarekin edo landatzen diren bestelako produktuekin.

Duela hainbat urte polemika piztu zen, ikastolek ustezko "segregazioa" builtzaten zutelakoan. Giro lasaia goa sumatzen dut nik orain, batez ere Gasteiztik kanpo. Nola ikusten duzu zuk egungo egoera?

Guk ez dugu inoiz aterik itxi. Ateak irekita egon dira, daude, eta egongo dira. Kanpoko ikasleak etorri direnean, jaso ditugu, eta oso pozik, gainera. Eta hori egin dugu oso baliabide gutxiarekin, guk ez dauzkagulako Hezkuntza Publikoan dituzten baliabide berdinak.

Gai konplexua da elkarrizketa arin batean azaltzeko, ezta?

Oso konplexua, bai. Abiapuntua da garai batean Gasteizen zegoen Eskolaratze Batzordeak zuzenean egiten zizkietela matrikulak familia etorri berriei. Garai horretan [bertoko] familia gehienek egin zuten apustua ikastolen alde, eta ez hainbeste eskolaren alde. Agian egoera



Arturo Lopez de la Calle, San Bizente ikastolako zuzendaria. JUANMA GALLEGO

orekatu nahian, gelak bete ziren, eta egoera hori luzatu da urteetan. Azkenean, etorri diren familia berriei aurkitu dute eskola publikoan zitzutela senideak, lagunak edo ezagunak. Ia-ia inertziaz izena

eman zuten eskola publikoan. Baina ez hemen ateak itxita ikusi dituztelako. Gatazkan sartzen zen beste puntu bat kuotei zegokiena zen. Gurean kuotak ez dira derrigorrezkoak, baina gehienetan ez dugu

aukerarik izan hori azaltzeko, familia horiek ez zirelako etortzen. Hainbat udaletara jo dugu, beste zerbitzuak azaltzen zaizkien modu berean, etorri diren familia berriei azaltzeko Oionen bi ikastetxe daudela aukeran. Arrazoi ekonomikoak tarteko, kooperatibista izan ezin direnekin beti alternatibak aztertu ditugu. Kooperatibista izateko, baina, kuota ordaindu behar da. Finantzaketa ez da %100koa. Eta falta zaigun zatia erekin familia guztien artean osatu behar dugu. Gure zulo handienetakoa garraioa da, guk ordaindu behar dugulako. Baina hezkuntza doakoa da.

Orain aldaketa bat etorri da... Bai. Orain Hezkuntza Sailak zaurgarritasun tasa orekatzeko lege bat du. Ghettoak sortu direnez, ikasle horiek hona bidali nahi dituzte. Oso ondo, ekarri gurera. Ikasleak joan daitezela nahi duten tokira. Baina, ikasleekin batera, jarri baliabideak ere. Guk zerbitzu publiko bat ematen dugu, gure ikasleak autobusetan etortzen dira, bazkaldu behar dute, baliabideak behar dituzte.... **Negoziaketa horretan ari gara.** Gainera, arazoak sortu dira, ikastolako familia batzuk hemen plazarik gabe geratu direlako, nahiz eta plaza fisikoak izan, zaurgarriak ez direnentzako plazarak geratu ez direlako. Eskola publikoan arazoak daudenean, baliabide

artepan



gehiago eskatzen dituzte. Baina guk inoiz ez dugu esaten ezer kentzeko eskola publikoari guri emateko.


Araba Euskarazekin zer behar ekonomiko ase nahi dituzue?

2015eko Araba Euskarazekin jantokiko obrak hasi genituen. Obrak bukatuta daude, noski, baina horien mailegua ordaintzen ari gara oraindik kooperatibisten artean. Aurten lortutako diruarekin gustatuko litzaiguke mailegu hori amaitzea. Funtsean, familiei lagundu nahi diegu, maileguari dagokion kuota hori behingoz kendu ahal izateko. Gero entzun beharko dugu elitistak garela: bi Araba Euskaraz antolatu behar ditugu jangela bat ordaindu ahal izateko.

Ikastola baten egoera zein den oso ondo adierazten du horrek. Bai zera, elitistak!

Jai Gasteizen zentralizatzea erabaki zen. Zelan ikusten duzu? Funtzionatu du honek?

Hori herri batzuen eskaerari erantzuteko erabakia izan zen. Gu izan ginen, hain justu, lehenengoak 2015ean jai Gasteizera eramaten. Zergatik? 2009an Oionen egin genuen azken festara oso jende gutxi etorri zelako. Egia esan, herri txiki batean bost edo sei gune jartzeak izugarritzko antolaketa eskatzen du. Ikusi genuen Oion ez zela toki erraza makrojai bat antolatzeko. Gasteizkoa oso ondo ateratu zen. 15.000 edo 20.000 lagun jasotzeko, askoz



2015etik zuzendaritza lanetan dabil Lopez De la Calle, J.G.

errazagoa da. Hortik hasi zen planteamendua irekitzen, eta duela hiru urte mahai gainean jarri zen Gasteizen egiteko aukera, nahi zuenarentzat. **Beraz, aukera zabalik dago?** Bai. Are, hainbat ikastolek aurreratu dute beren txanda iristean herrian egingo dutela. Hala eta guztiz ere, hemen ere

"BI ARABA EUSKARAZ EGIN BEHAR IZAN DITUGU JANGELA BAT ORDAINTEKO; BAI ZERA, ELITISTAK!"

mini Araba Euskaraz bat antolatu dugu. Tartean, Mugaezin jaialdia egin dugu herrian, hemengo familiek herrian bertan ospatu ahal izateko.

Proiektu pedagogikoaz, zer nabarmenduko zenuke?

Oso harro gaude. Zaintzen dugun arlo inportanteena ongizate emozionala da. Ikasle bat ondo ez baldin badago, ezin du ikasi. Hortik hasita, nahiko aitzindariak gara Matematikako proiektuetan eta beste hainbatetan. Bukatzean, jarraipena egiten zaie ikasleei, eta argi dago proiektuak oso emaitza onak dituela. —

M Mendinga Optika

150 urte zure ondoan

www.mendiaoptika.es

10 ALEA

araba euskaraz '24

OLARIZU

ekainak 16



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA
Zurekin bat

www.fundacionvital.eus



Lau kidek osatzen dute Eh Mertzke! taldea. EH MERTZKE!

Ezer gubxi dakit nik musikaz, baina zuena gustura jasotzen den horietakoa da...

Beti entzun eta gustatu izan zaigun estiloa gure moduan egin dugula esango nuke. Badira musikari on asko, gauza berritzaile asko egiten dituztenak, eta hori oso interesgarria da. Baina, gure kasuan, ileak puntan jartzen dizkigun musika egiten dugu. Lehen aipatu duzu *garito* hitza. Bada, musikariak izateaz gain, gu publiko bagara ere, eta astebururo joaten gara

garitoetara kontzertuak ikustera. Oso gustura gaude egiten dugun honekin. Gainera, kanpoan ibiltzean konturatzen gara ez garela friki bakarrak, eta munduan zehar badagoela gu bezalako asko.

Araba Euskaraz abestiak aukera emango du ere rock-and-rolla belaunaldi berrietara eramateko...

Bai. Musika beti lotzen da aisiarekin, baina ez dezagun ahaztu musika kultura dela ere, eta kultura hezkuntzaren parte izan behar dela. Ni musika berrien zalea naiz ere, baina

horrek ez du esan nahi kritiko izango ez naizenik. Ez zaizkit gustatzen musika berriei guztiz itxita daudenak, ezta musika berria baino entzuten ez dutenak ere. Musika kultura da. **Gainetik bada ere, zein izan da zuen ibilbidea?**

2016an atera genuen gure lehenengo maketa; urtebetera, single bat, Arabako Errioxan Lurrikara izeneko gazte mugimendu oso polita eratu zenean. 2018an, bigarren maketa. 2022an gure lehenengo lan luzea atera genuen. Orain, besteak beste, beste single bat aurkezten ari gara.

'Una banda de mierda en una época de mierda' izenburu izenburu esanguratsua duen dokumentala grabatu duzue...

Bai. Pandemiaren garaian jende asko hasi zen *streaming* kontzertuak egiten, eta talde handien inguruan asko publikatu zen. Dena oso polita. Baina musikari gehienok ez gara musikari profesionalak, eta ez gara oso famatuak Arabako Errioxan ETS bezalako fenomeno behin baino ez da gertatu, eta seguruenek urteak pasako dira halako beste bat gertatu arte. Pentsatu genuen falta zela errealitatea irudikatzen zuen zerbait egitea. Baliabiderik gabeko talde baten egunerokotasuna erakustea. Izan ere, orain sare sozialekin beti arrakasta azaltzen da. Guretzat arrakasta da lagunekin taldean jarraitzea. Hamar urte daramatzagu elkarrekin, eta hurrengo hamar urteak ere horrela jarraitzea nahiko genuke. Horrelako leku ilun eta izerditsuetara musika entzutera joan, lagunekin egotera. Ahalik eta leku gehiagora joaten, eta jende berria zein proiektu berriak ezagutzen. ■

Gure baserrietatik zure etxera

Euskaber Koop. S.
BASERRIKO ZURE ABARUTZAK

- IÑIGO IRIGOIEN (KANPEZU)
- TXOMIN SERNA (NARBAXA)
- MIGEL ANGEL BETOLAZA (PAGOETA)
- JAIME GOMEZ (ESPEJO)
- SERGIO RAMOS (TXINTXETRU)
- JULEN HORNILLOS (MURGIA)
- MIKEL FERNANDEZ (TUESTA)
- SERGIO PEREZ (MORILLAS)
- IÑAKI MARTINEZ (HUETO)
- ESTHER BADA (FONTECHA)
- JAVIER MARKINEZ (NUVILLA)
- JOKIN GOROSPE (AGURAIN)

araba euskaraz '24 mugaezin

Armentiako ikastola, Olarizun ere, garena zabaltzen!

Armentia, GU



Gaur egun, 150 bat helduk jasotzen dituzte euskara eskolak Arabako Errioxan IKAREN eskutik. ARABAKO ERRIOXAKO IKA

Erronka, akademiatik harago

IKA euskaltegiko Arabako Errioxako irakasleak omenduko dituzte Araba Euskarazaren ekitaldi nagusian, urteetan eskualdeko "helduen euskalduntzean egindako lan oparoagatik".

ANAKOZ AMENABAR

Arabako Errioxako helduen euskalduntzean urteak daramatzen IKA euskaltegia omenduko duite igandeko jaialdian. Duela 45 urte ikastolako guraso talde batek lehen euskara eskolak jaso zituen AEKren eskutik, eta bide hori sendotuta euskaltegia ere sortu zuten eskualdean, 1991tik aurrera IKAKo irakasleen esku geratuko zena. "Egin duten lan handi hori aitortu eta omendu nahi dugu aurtengo ekitaldian", nabarmendu duite Araba Euskarazaren antolatzaileek.

Irakasle talde horretara 1992an batu zen Andoni Landa (Azpeitia, 1966), eta ondo

gogoan du urteotan euskaltegiko lanak izan duen bilakaera. Oraindik egiten dituzten herriz herriko joan-etorriekin batera, besteak beste, ordutegi aldaketa handiak izan dituzte urteotan, ardogileen lan sasoieta egokitzen baitziren garai batean eskolak, eta autoikaskuntzarako *online* eskaintzak aukera desberdinak ireki dizkie ikasleei

"BAKARKA EZ DU ONDO FUNTZIONATZEN; 'ONLINE' BADA ERE, TALDEA IZAN DADILA"

ANDONI LANDA, ARABAKO ERRIOXAKO IKA

azken garaiotan. Aldaketa nagusia, baina, ikasleen motibazioan nabaritu du Landak. Orduan "euskaldun sentimenduari bide ematea" zen motibazio nagusia euskaltegira gerturatzeko zirenen artean. "Gurasoek zerbaitengatik aukeratu zuten euren seme-alabek euskaraz ikastea, eta hori zen arrazoi nagusia euskaltegian euskara ikasteko". Aldiz, gaur egun, "instrumentaltasuna" nagusitu da. "Lehen inork gutxi zuten buruan titulua, eta gaur titulua lortzea da helburu nagusia, hori motibazio bakarra ez bada ere".

Ildo horretan, atal akademikoaz harago, bestelako egitasmoak beharrezkoak direla

uste du Landak, eta, besteak beste, Tiki-Taka euskara elkarteari esker bestelako eskaintza egiteko aukera dutela gogoratu du, baita Arabako Errioxako ikastolekin batera ere. "Elkartearen bitartez, euskara erdiguneari jartzea da erronka; pertsonalki, sozialki eta politikoki erdigunera eramatea; kontzientzia falta horretan eragiten saiatzen ari gara". Guraso-lagun proiektuari esker, adibidez, umek ikastolatik atera, eta, astean pare bat ordu behintzat, gurasoak elkarrekin euskaraz entzuten dituzte. "Umeei laguntzeko bakarrik ez da, noski, baina umeei ere laguntza handia emango litzazieke gurasoak euskaraz entzute hutsarekin".

Ikastolako ikasleak

Gaur egun, 150 bat lagunek ikasten dute Arabako Errioxako euskaltegi desberdinetan, eta, IKAK ikastolekin duen akordioari esker, hiru urtez bi orduko euskara eskolak jasotzen dituzte ikasleek, DBH4tik hasita, C1 mailako trebetasuna lortzeko helburuarekin.

Pandemiaz geroztik, *online* esperientzia indartu dutela azaldu du Landak. Arazo handiak izaten dituzte urtero taldeak osatzerako garaian, eta norbere lekutik ikasteko eskaintzak aukera erraztu die ikasleei. Ordutegi eta maila desberdinen artekoak adostuta, esate baterako, Mendabian bizi diren bi lagun, Bastidan bizi diren beste bi eta Logroñoeko beste bat elkartzeko aukera ematen die horrek. "Ikusi dugu bakarka ez duela ondo funtzionatzen ikasketak. Zerbaiten parte izan behar du, eta talde hori *online* bada ere, taldea izan dadila".



12:00 KALEJIRA MUSIKATUA
San Juan Plazatik

12:15 BANAKO DANTZALDI HERRITARRA
Santa Marian

12:30 UMEENTZAKO JOLASAK
Santa Mariako Karpan

13:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDI ETA ERRONKA HERRITARRA
Santa Mariako Karpan

12:30 MURAL MARGOKETA PARTE HARTZAILEA
Santa Marian

13:30 FOLK INPROBISAZIOA
Herriko Tabernan

15:00 HERRI BAZKARIA MUS TXAPELKETA BINGOA
Titelak maiztaren 16tik ekainaren 9ra Herriko Tabernan salgai.
Helduak 20€ - Umeak 10€ (2 urtera arte).
Aukera begano/begota/glutenik gabekoa nahi izatekotan jakinarazi titela erostekoan.

18:00 ZUNBA DANTZALDIA
Andererakin Santa Marian

19:30 KALEJIRA EKITALDIA

22:30 KONTZERTUAK Santa Marian

BEIETZ!

DJ HMNDK ETXERA

DUPLA DJ BERIX





Zortziak bat

Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugu gure hizkuntza. Mugarik gabe, ez bada ortzimuga, mugarriz mugarri, euskararentzako espazio zabalagoak irekiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztientzat. Euskal Herriaren hego-mendebaldeko bazterretik ari gara, euskarazko hatsa igorri erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, hegoaldeko nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarriz gurera. *Mugaezin*; horrela, mugagabea, dugu Araba Euskaraz leloa. Su planetak eta Gar izarrak erakusten digute bidea, Lurretik 26 argi-urtera. Euskara unibertetsala baita!

Ikastola guztiok batera, guztiok batuta. Arabako zortzi ikastolak elkarrekin aritu gara aurten ere Araba Euskaraz antolatzen. Azken bi ekitaldietako ereduari jarraipena emango diogu, auzolana ardatz hartuta, eskuz esku, jakintza elkarbanatuz, gure harremana aberastuz. Eta azken bi urteotan bezala, Gasteizko Olarizun ospatuko dugu ekainaren 16an.

Lan asko izan dira elkarlanean kudeatu beharrekoak. Horiek guztiak samurrago egin dira ikastola guztiok batuta, eta denon artean koordinatuta. Guztioren artean egin dugun auzolan honi esker, ikastolen



2023ko Araba Euskaraz. ALEA

proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu. Baina, era berean, euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaini. Guztion lana, konpromisoa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Guztion esfortzua ikastolen proiektuak aurrera ateratzeko. Urte honetako Araba Euskarazekin Oiongo ikastola lagundu nahi dugu. San Bizente ikastolaren proiektua ezagutzera ematearekin batera, Oionen eta Arabako Errioxan euskararen erabilera aldarrikatu eta bultzatzeko, eta erabilera eremuak zabaltzeko baliatuko dugu euskaltzaleon jaia.

1976an sortua, ia mende erdi bat ari da San Bizente Oionen errotuta lanean. 0-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, eta uneotan 207 familiak, 301 ikasle, 34 irakasle eta langilek osatutako komunitatea da.



UNAI MENDIZABAL

ARABAKO IKASTOLEN LEHENDAKARIA


Funtsezko bi oinarrik ematen diote Oiongo San Bizenteri berezko nortasuna. Alde batetik, kooperatiba da, gurasoek antolatua, seme-alabei hezkuntza euskaldun eta kalitatezkoa eskaintzeko, kudeaketa demokratiko eta garden baten bitartez. Bestetik, kalitatezko zerbitzua eskaintzea da ikastolaren xedea. Bi ezaugarri horiek ematen diote San Bizenteri berezko nortasuna: ikastetxe euskalduna, integratzailea, akonfesionala, hezikidetzagilea da, eta metodologia parte-hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dituena Oiongo eta inguruko familia guztientzat. Izan ere, inguruko herrietatik ere jasotzen ditu ikasleak, bai eta Errioxara bizitzera joandako zenbait familiaren seme-alabak eta zenbait ikasle nafar ere. Harreman estua dauka Arabako beste zazpi ikastolekin, baina berezki, Arabako Errioxako beste bi ikastolekin, Bastida eta Assarekin. Hiruen artean lortu dute lau-bost hamarkadatan eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik %40tik gora izatea. Ez da erraza izan eta oraindik ere zaila izaten jarraitzen du, baina gure gogo eta grina ere mugaezinak dira. Eta gure gogo mugaezinarekin lortuko dugu Arabako Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldunean. ■

Coca-Cola, Araba Euskaraz jasangarriago baten alde lanean

BABESTUTAKO EDUKIA

Beira etengabeko apustua izan da Coca-Colaren negozioan, ontzi jasangarriena delako eta kontsumitzaileek gogokoan dutena. Zergatik? Ontzi birziklagarria eta itzulgarria da, eta Coca-Colak bildu, bere fabriketara itzuli eta berriro betetzen du; hortik dator bere "bizitza zirkularra". Horregatik egongo da Araba Euskaraz-en ere, jende asko biltzen duen festa baita, eta, beraz, ezinbestekoa delako kontsumo jasangarria sustatzea.

Jakina da konpainiak aldi berean eta gizartearekin bat lan egiten duela, fronte berberetan ari dela, bere



COCA-COLA EUROPACIFIC PARTNERS

negozioarekin zerikusia duten arloetan ekonomia zirkularra aplikatuz, hala nola, uretan, emisioetan, hornidura-katean eta,

jakina, ontzietan. Izan ere, Coca-Cola Europacific Partnersek duela urte batzuk eronka bat ezarri zion bere buruari ildo horretan, eta bide beretik egiten du lan.

Eta zer dago beira baino jasangarriagorik? Ekoizten den beira guztiaren %92 itzultzeko moduko ontziak dira, eta, beraz, Coca-Colaren Contour botila, ikonikoa izateaz gainera, 25 aldiz erabili daiteke birziklatu aurretik; hau da, horrek batez beste sei urte esan nahi du. Horregatik, eta are gehiago uda eta jaiak iristearekin batera, beira eta ontzi jasangarrien aldeko apustua egitea ingurumenaren aldeko apustua egitea da. ■





Herrian zortzi gune aukeratu zituzten anfitrioiak bisitariari erakusteko. Horieta bat, Mahastietako Andre Maria basiliza. SAN BIZENTE

Bestea ezagutzeko aitzakia

Festa egun handiaz harago doa ikastolen arteko elkarlana Araba Euskaraz bueltan. Iaz zortzi ikastoletako ikasleak biltzeko ekimen berria abiatu zuten, arrakasta handiz; aurten, errepikatu dute.

ERREDAKZIOA

Iazko Araba Euskarazekin batera aurrenekoz martxan jarri zuten Arabako zortzi ikastolen arteko hitzordu berezi bat: ikasleen topaketa. Ez dute zertan burua puskatu antolaketa egiteko moduaren bueltan, urte bakoitzean jaia antolatzen duen ikastolaren esku geratzen baita. Hala, 2023an Aguraingo Lautada ikastolak egindako lehen hitzorduari jarraiki, aurten Oiongo San Bizente ikastolak antolatu du eguna.

Martxoaren 14an egin zuten topaketa Oionen, EKI

hezkuntza metodologiaren barruko *Ikusteko behatu, behatzeko sentitu* izeneko unitate baten jarraibideei segika.

Elkar ezagutzea

Helburu nagusietako bat da herriak gertutik ezagutzea, baina beste xede garrantzitsu bat da ikasleek "elkar ezagutzea eta giro euskaldun batean gozatzea", Arabako Ikastolen Elkartearen arabera. Norabide horretan, San Bizente ikastolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek Oion ezagutzeko gida turistiko bat prestatu zuten. Orotara, zortzi

txoko erakutsi zizkieten beste ikastoletatik iritsitako 270 bat ikasleei: Mahastietako Andre Maria basiliza, herriko parkea, ikastola, jauregiak, udaletxea, Santa Maria Eliza, Ullone iturria, IKA euskaltegia eta COMY ardo kooperatiba.

Turismoa ez ezik, aitzakiaz baliatu ziren ere bisitaldia hasi aurretik jolas batzuk eta hamaiketako egiteko, eta, ondoren, zortzi taldetan banatu ziren bisitaldiak errazago egiteko. Bisitaldia bukatuta, elkarrekin bazkaldu zuten guztiek. "Ezin ukatu, egun ahaztezina pasa genuela", gogorra ekarri dute. ■



Etiket edo liburu-dendan eskuratu ikasturte berrirako behar duzun guztia.

